

Jeanne-Marie Mendibil
Bardoze, Lapurdi (1880-1938)

Aurkibidea

Biografia

Jeanne-Marie Joanteguy zen bere sortzezko izena. Bardoze Legarre auzoan sortu zen 1880ako azaroaren 11n, Kapera deituriko etxean. Aita oragartarra zuen; ama bardoztarra, Arotxaenea etxekoa. 1913. urtean Amoroitze-Zokotzen ezkondu zen Jean Mendibilekin eta haur bakarra izan zuten, Jean-Baptiste, 1918 urtean sortua. Dendaria izateaz gain (*Mendibilea* deitutako janari saltegian/ostatuan), ortuzaina ere bazen Jeanne-Marie. Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak egin zion grabaketa 1913. urtean, 32 urte zituela. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.188 eta 2.190

Zintak

BDZ-003

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-27
- **Iraupena:** 4 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Eskola gutxi, lan asko

- **Erref:** BDZ-003/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bere bizitzaren berri ematen digu pasarte honetan. 1880. urteko hazilaren (azaroa) hamaikan Bardozen sortua. Aita arotza zuen. Zortzi haur bizi ziren, beste hiru hilak ziren. Bortz urtez joan zen eskolarat, azken bietan huts asko eginez haurrak zaintzen zebilelako. 14 urte zituela, haurrak zaintzen joan zen amerikar laborari baten etxera. Gero josten ikasi zuen.</p>

Transkripzioa

Amorotze, uztailaren hoita zazpia. Jaunak, xapo'at enbarrasatia nüzü, ixtorio hunen eiteat, bana ene ahalaz kuntentatüko dielakotz hasten nüzü ene in ahalaan eitia.

Bardotzen sorthia nüzü hazillaren hamekan Juandene Martiñaz hemezortzi ehun eta lauetan hogoi urthian. Jende erdi prauetarik jaliten nuzu, nahiz beren etxen zien; aita arotza nizin, baginduzun, zortzi haur, hiru hilik, eiten beitie hameka. Bortz urthetan juan nüzü eskolaat hamabi artio; azken bi urthetan anhitz huts ein tzit, haur beiratzeat juuteko, zonbeit aldiz hotsemaiteat juuteko aizuetarat eta hola. Hamalau urthe nitienien, igorri nintzien haur beiratzeko neskato Donezte hirirat laborari amerikano bateraat. Hamortz hillaete egonik hillaitien lau libera ibazten beinien, hoi libera berechi beinitien, postan libret bat hartürik plazatü nizin. Hasi nünzün josten ikhasten, hantik hiru hilleeten bürían berriz sehi juan Landesetarat aitaen ezautu batenaat. Bi urthez han ibazi dizit lautan hoi libera eta zunbeit athorra eta philda urthian. Gero lanien ikhasi nien xapo'at, eta gehiao ibaazi [nahiz sarthu nuntzun Bardotzeko jaun medikiaren etxen.]

2. Amorotzerat ezkondu

- **Erref:** BDZ-003/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bere sorterrian bizi izan zen bere ama hil zen arte. Senarrarekin ezkontzea deliberatu eta Amorotzerat joan zen bizitzera.</p>

Transkripzioa

Bildurik ene denbora han pasatü goo nizin sorthü herrian. Etxe hartan ama instalatü nizin, eta bera egoiteko ordükotz ezindia beitzen eta nik ez aski sos bazterreat emanik bien bizitzeko han, ikhasi nizin trikotatzen mekanikan. Ordien erosi nizin mekanika trikotatzen artzekua zazpi ehun libera paatüik. Hasi banintzan hasi, bana jin behin xapo'at eta gero eta gehiago kozinatzen ere ibili nuzu eta gustian Bardotzen bizi amarekila. Emeki-emeki ama ttipitzen ari beitzin, juiten, bi urthe et'erdiin burien hil zautazün ama. Gero nihaur gelditü haurhidekila, ezdeuskerietan makhurtu, berriz sehi juan goo nielaik etxia fermatü nizin, atxikiz enetako sukhaldia eta khanbera erreserbatzen nielaik. Agertzen zaut oai düan senharra, nihaurek untsa jakin gabe nola deliberatü dizit ezkuntzia igan lollan; deliberatü, Amotzeat jin aphilla, esposatü eta hola nun nizan orai lakhetia Amоротzen, artian haatik anhitz kuntent bardoztarren ikhustiaz eta hekin xapo'at elhekan artzia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com